



## Gure Ondaria zaindu guran


# ERROTAK ( II )

**O**ñatiko herrixan hogeitaka errota ezagutu dira historixan zihar. Danak etziran, jakiña, garai igualtsuan sortutakuak. Lehenengo albistiak XV. mendekuak dittugu, baiña seguru asko aurretik be izango ziran erreka ertzetan jasotako errota. Antxiñako agirixetan aittaketan diran errota-izenik zaharrenen artian ondorengo honeik agerketan xaku: **San Migel** (1432), **Araotz-urruti** (1439), **Olalde** (1475), **Liñantzibar** (1485), **Zuazola** (1488xa baiño lehenago), **Lamiategi** (1488), **Bidaurreta** (1514), **Olabarrieta** (1514), **Algonbizkar** (1547) eta **Akuegi** (1583). Honeittaz aparte **Elorregikua**, **Pedro Ibañez Hernanikuarena**, **Zubillagako olakua**, **Garibaikua**, **Lazarragatarrena** (San Pedron seguruenik) eta **Errotabarrikua** be agiri dira 1593ko dokumentu baten, urte haretan izandako ur-handittan kalte inportantiak euki zittuailako. Jarri dittugun fetxa horreik eztaue esan gura errotok urte horreittan egin ziranik, ordurako martxan zirala baiño.

Hurrengo mendietan artua gure baserrixetan gehittu ala, ugarittu ziran errota be. Labrantzaiak XVIII.ian izan eben pultzakadarik nabarmenena: baserri barrixak jaso eta ordurarte baso edo zelai izandako lur asko urratu eta landu egin ziran. Zenbat eta ale gehixago produzidu, orduan eta errota gehixagoren premiñia egongo zan gari-arto horreik ixoteko. Iñaki Zumaldek Oñatiko Historixan esaten doskunez, XVIII. mendia akaberan 23 errota ei ziran Oñatin; eta Felix Ugarteren lan bateri eskerrak dakigu sasoi horretakuak dirala, adibidez, **Tokillo** (1767) eta **Jaturabeko** (1768) errota. XIX. mende osuan eta XX.aren lehenengo erdialdixan hogei inguru izango ziran Oñatiko errota, nahiz eta, normala danez, tarte horren barruan batzuk ixotiarri itxi eta beste batzuk lanari ekin.

Hona hemen hogeigarren menderate allegau diran erroten zerrendia auzorik auzo:

San Prudentzion: **Elorregi**, Bergara eta



*Olabarrietako errota, gauregun Oñatin ixoten dauen bakarra. Diapositiba hau Joseba Agirrerena da.*

Mondragueko mugatik urrian.

Zubillagan: **Zubillaga**, orain Altunanekeo fabrika daguen lekuan.

Torreazon: **Garibai**, kastillokua baserrixaren parian, errekiak bestaldetik.

Zañartun: **Usako**, orain herriko igerileku bihurtuta daguen presia baiño beheratxuago.

Garagaltzan: **Zuazola**, errotarik zaharrenetakua (XV. mendekua, gutxienez); etxe honen onduan eguen eta orain dala urte gutxi bota zan zubixa letxe. **Lamiategi**, herrixak 1488xan jasotakua, gero Unibersidadiak bereganatuko baeben be.

Urruxolan: **Urruxola**, Olatetik errekan gora bi bat kilometrotara.

Araotzen: **Jaturabe**, izen bereko zubi azpixin eta presia baiño beherago. **Errotabarri**, Araotzeko sarreran; Uriartetarrena zan. **Boliño**, zubixa auzuan eguena; zerrajerriak erosi eben 1915ian eta 1920xan itxi otzan ixotiarri. **Saratxo**, Araotz-urrutin; mende honetakua. Zein ete zan bestalde, XV. mendian agerketan dan **Araotz-urrutiko** errota hori?

Arantzazun: **Akuegi**, herrixarena zan, baiña denbora askuan Arantzazuko komentuak ebali eben; XVI. mendera orduko bazan eta 1870ian baserri barrixa jaso eben errota zan tokixan.

Berezaon: **Tokillo**, Ubao errekiaren ezker aldetik. **Liñantzibar**, Berezaon auzoko beste muturrian, San Martin eta Altxibar bittartian; XV. mendekua, behintzat. Sasoi baten Oñatiko kondiena zan.

Murgixan: **Santa Krutz**, Tokillo baiño

beheratxuago, baiña Ubao errekiaren eskuma aldetik. **Murgiko errota**, Santa Krutz eta Liñantzibar bittartian, Murgialdai baserrixaren barrenian.

Olabarrietan: **Olabarrietakua**, XVI.aren hasieran (1514) gutxienez lanian ziharden; lehenago be bai, biharbada. Gaur egun, barriztau ondoren, Oñatin martxan daguen errota bakarra dogu.

Goribarren: **Errotabarri**, 1976rarte edo, ixo ebein Kale-errekiaren ertzian daguen errota honetan.

Larrañan: **Olakua**; sasoi baten, Bidaurretako oliarekin batera eguen, torretxiaren inguruan eta orain Olako auzua jaso dan lekuan; 1840rarte iraun eben.

Beste errota historiko asko lehenago geldittu ziran: San Juan kalia eguen **San Migel** (Gebaratarrena eta parrokixiarena); **Zubillagako olakua** (Kondiarena hau be); **Olalde** (orain Garaineko fabrika dan inguruan); **Algonbizkar** edo **Elgonbizkar** (Lamiategi edo Albarritza aldian egon eikiena; kontzejuarena zan); **Albardizaga** (Albarritzan, jakiña; hau be herrixarena zan); **Erguña** (Zubillaga auzuan, baiña Urkulu-errekan; herrixarena zan); **Errotatxo** (Lamiategi eta Arregi bittartian; Garagaltza auzuan); **Azkarraga** (aurrekua baiño puska bat gorago, Uribarriko erreka-zuluan, Azkarraga parian); **Gasparrena** (Araotzen, Saratxo errekiaren ertzian); **Errotazar** (Kortabarri baserri baiño beherago; orainddiok arrasto batzuk geldiketan dira).

Garixa urriketan hasi zanian geratu ziran errota gehixenak, hau da, 1960ttik aurrera; 1971an Elorregi, Lamiategi, Errotabarri eta Olabarrietakuak bakarrik ziharduein lanian; lehen esan dan lez, Olabarrietakua da gaur egun ixoten dauen bakarra. Dana dala, errota batzuk nahikua osorik geldiketan dira orainddiok, eta hainbat presa, malatu eta andapara be bai; batzuk 500 urtetik gora dakoiñak. Zihero hondaketako arriskuan dagozela jakindda, gure patrimoniaren zati hau zainketako, zerbait egitteko ordua heldu xakula uste dot. ■

JERARDO ELORTZA